



Greba orokorra Hego Euskal Herrian

# Sindikatuak Gipuzkoako langileen erabateko bultzada jaso zuten atzo

Aparteko istilurik eragin ez zuten mobilizazio ugari egin zen eskualdeka

**S**indikatuak antolatutako greba «erabatekoa izan» zen atzo, sindikatuen iturriek aditzera eman zuten. Gipuzkoako enpresarien Adegiko elkarteak, ordea, goizeko bederatzietako datuekin % 70eko geldialdia zegoela aipatu zuen. Goizean eskualdeetan manifestazioak egin ziren eta arratsaldean herrialde osoan manifestazioa izan zen Donostian.

X.L. / DONOSTIA

Gipuzkoan geldialdia erabatekoa izan zela adierazi zuten atzo iturri sindikalek. Greba orokorrerako deialdiari alor industrial, ekonomiko eta sozial guztiek jarraitu zioten. Industria, arrantza, merkataritza, hosteleria, sanitatea, garraioa, aduana, kooperatiba, banka, etxeak, administrazioa (udaletxeak, Diputazioa...), aireportua, komunikabideak... guztiek greba egin zuten.

Goiz goizetik lehen turnoetako enpresa handienetako langileak ez ziren lanpostuetara agertu eta gutxienezko zerbitzuak betetzen zituzten autobus eta trenetan ez zen ia langilerik. Prentsa saltzen duten kioskoak itxita zeuden eta komunikabide gehienek informatiboak soilik eskaintzen zituzten. Goizeko bederatzietan Donostiako bankuetako langileek manifestazioa egin zuten, eta irekita zeuden Administra-



Langileek Espainiako Gobernuaren politika ekonomikoa salatu zuten Donostiako manifestazioan. A. GILLENIA

zioko bulego, taberna eta denda eskasek itxi egin zuten, hiriburu erabateko greba egonik. Gutxienezko zerbitzuetan 17 udal autobus ibili zirela adierazi zuten iturri berberak eta denak Udaltzaingoa zaindu zituen, goizean piketeek hiru autobusen gurgilak zualatu bait zituzten.

**GIPUZKOA OSOA GELDITUTA** Irun aldean greba arrakastatsua izan zen atzokoa. Irun eta Hondarribiko udalak, Palmera, Montero, Porcelanas Bidasoak... itxi egin zuten. Aireportuko langileek greba egitea erabaki zuten baina gutxienezko zerbitzuak ezarri ziren. Muga pasatzeko zain zeuden kamiolariak goizaldera arte itxaron behar izan

dute aduanetako langileen lanuztea zela eta.

Erreterria inguruko udal guztiek itxi egin zuten, baita enpresak ere. Pasaiko portuak ere ez zuten lanik egin eta kargatu eta deskargatu behar zuten barkuek gauera arte itxaron behar izan zuten. Hernanin Zikuñagako papelerak eta Luma enpresak ezik guztiek itxi zuten: bankuetxeak, dendak... Anbulatorioak larrialdiak soilik hartu zituen kontuan. Gauza bera Andoain, Urnieta eta Lasarten. Azken herri horretan Michelineko bulegoetako 200 langileek soilik egin zuten lan eman zuten aditzera grebarako dei egin zuten sindikatuek.

Tolosaldean ez zen ezer irekita. Kostaldean, Zarauzko abun-

latorioak eta Itur enpresak ez zuten itxi eta Zumaian Bombas Azkuek. Getarian ez zen arrainik saldu eta Urolan greba erabatekoa izan zen.

Goierri, Olaberriako Argon enpresa ezik ia dena itxita zegoela jakin erazi zuten sindikatuek. CAF, Estanda, Aristrain, Orbegozok... greba egin zuten.

Debaldean alor guztiek greba deialdiari jarraitu zioten. Alfa, Star, Iberduero, INEM, Sigma, Sapa, Aida, Solac, Unibertsitate Laborala; Arrasate eta Bergara aldeko kooperatiba guztiek egin zuten greba eta Mutriku eta Debako portuetan ez zen arrainik saldu. Eskualde honetako ospitale eta anbulatorioetan zerbitzu minimoak izan ziren.

□ **ADEGIK** (Gipuzkoako Enpresarien Elkarteak) jakin erazi zuten, hainbat lantegitan piketeek langileak mehatxatu eta beldurtu nahi izan zituzten. Renfe eta Eusko Trenbideetan ezik gainerako garraio publikoetan gutxienezko zerbitzuak ez zirela errespetatu salatu zion Adegiko prentsa bulegoak egunkari honi. Bestalde, hainbat tailer txikitik enpresariak langileekin «lan egutegiaren aldaketa negoziatu» zutela adierazi zuten iturri horrek. «Tailer batzuetan —jarraitu zuten— piketeen beldurrez eta arazorik ez izateko, atzoko eguna jaiegun batez aldatzea erabaki zen». Gipuzkoako enpresarien elkarteak, hala ere, aipatzeko istilurik ez zela egunean zehar gertatu aitortu zuten.

□ **ARRAINIK** ez zen saldu atzo Gipuzkoako portuetan. Arrantzaleak, greba deialdiarekin bat eginez, herenegun arratsaldean ez ziren itsasoratu eta ondorioz, atzo ez zen saltzeko arrainik izan. Sindikatuetako iturriek aditzera eman zuten, atzo arratsaldean itsasoratu ziren barkuak. Pasaiko portuan alturako barkuek ere ezin izan zuten sartu eta gauera arte itxaron behar izan zuten. Gauza bera egin behar izan zuten muga pasa nahi izan zuten kamioiek, gauerarte ez bait zen aduanetako langileen greba amaitu.

□ **KOOPERATIBA** alorrek erabateko greba egin zuten atzo. Arrasate, Bergara eta Oñati aldeko kooperatibetan lan egiten duten 6.500 langileek greba egin zutela adierazi zuten LAB sindikatuak. Fagor-eko sail desberdinak, Langile Aurrezki Kuxta, Lagun Aro, Roneo Ucem, Gamci... Arrasaten; Mayo, Labe Garaiak, Narbaiza... Bergaran eta Cegasa, Zahor, Ulmak... Oñatin greba egin zuten atzo. Aldi berean, eskualde honetan, kooperatibez gain, gainerako enpresak itxi egin zuten eta geldialdia erabatekoa izan zen. Ikasleak ere, ez ziren ikastetxetara agertu.

## Milaka euskal langilek Espainiako Gobernuaren politika salatu zuten

X.L. / DONOSTIA

Milaka langile bildu zen atzo Donostian ELA, CCOO eta LAB sindikatuek herrialdeetan deitu zituzten manifestaldietan. Bi manifestaldi desberdin egin ziren Donostian. Lehena, ELA eta CCOOek antolatu zutena, Alderdi Ederretik 17.30etan hasi zen. 'Euskadi enplegua eta babes sozialaren alde' eta 'Dekretukadari ez' zioen pankartak irekitzen zuten manifestaldia. Bertan LSB-USO sindikatuak langileak ere zihozten. Manifestaldi koloretsua izan zen eta Gobernuaren politika ekonomikoaren aurkako oihuak egin zituzten.

Bigarrena, LAB sindikatuarena, ordu berean baina Bulebarretik atera zen. Honetan ere milaka langile zihozten eta LABek 'Euskal Herriko etorkizunaren alde' lema aukeratu zuten pankartarako. Manifestaldi honetan CGT, ESK, CNT eta STEE-EILASEko langileak ere izan ziren. Manifestaldi honetan Espainiako Gobernuaren eta Soltxaga ministroaren aurkako esloganez gain, Salto del Negroko presoaren aldeko oihuak bota ziren eta emakumearen lan egoera ere salatu zen.

Hala ere, Madrilgo Gobernuaren politika ekonomikoa eta hongo Hego Euskal Herriaren etorkizunari ezartzen dion muga

izan zen atzoko Donostiako bi manifestaldietan egin zen kritika nagusia.

Milaka lagun bildu zituzten bi manifestaldiek Bulebarrean amaitu ziren, ordubete beranduago, istilurik gertatu gabe. Hauek hasi baino lehen, Bulebarrean bertan, Egizan eta Emakumeen Asanbladak ekitaldia egin zuten itxitako Suchard eta Gomaytex-eko emakume langileen egoera salatu asmoz.

Goizean ere Gipuzkoan ELA, LAB eta CCOOek antolatuta, eskualdeburu guztietan manifestaldiak izan ziren. Hernani, Eibar, Donostia, Irun, Arrasate, Erreterria eta Tolosan. Goierri



Donostian Udaltzaingoa autobusak zaindu zituen. ANDER GILLENIA

eta Urola-kostan ere mobilizazioak izan ziren. Auto karabanak ere antolatu ziren. Istilu bakarrak Ertzaintzarekin Erreterrian gertatu ziren, manifestaldia amaitu eta gero.

Gogoratu behar da, Donostian Udaltzaingoa udal autobusak zaindu zituela piketeek egin zituztako erasoak ekidin asmoz. Hala ere, ez zen aipatzeko istilurik gertatu piketeekin.